

BAZTAN/KINTOA LURRALDEKO LANDAREDI KORMOFITIKOAREN IKERKETA: KATALOGO FLORISTIKOA

Arantza Aldezabal

Cuadernos de Sección. Ciencias Naturales 10. (1994), p. 227-375.
ISSN 0212-4173
Donostia: Eusko Ikaskuntza

Baztan/Kintoako landaredi kormofitikoaren ikerketan, azterturiko eremuaren kokapen geografiko zein biogeografikoa, bai eta aspektu klimatiko, geologiko, geomorfológico eta edafológioko ezaguarri orokorrak ere aipatu dira. Halaber, Flora, Landaredia eta elementu korologikoei buruzko oinarritzko kontzeptuak explikatu dira, landare-di-komunitate nagusienen gainetikoa deskripzioa ere inkluditu delarik. Azkenik, landare-katalogoan, zitaturiko especie bakotzaren kasuan, izen zientifikoa, autorea, zein elemento korologikori dagokion, gure aipamenak (datuez horniturik) eta beste autoreen zita bibliografikoak ere adierazi dira.

En este trabajo sobre la vegetación cormófita se hace mención de la situación geográfica y biogeográfica de la zona estudiada, así como las características generales de sus aspectos climáticos, geomorfológicos y edafológicos. Igualmente quedan explicados conceptos fundamentales en torno a la Flora, Vegetación y elementos corológicos, habiéndose incluido también la descripción de las principales comunidades vegetales. Finalmente, en el catálogo de plantas se mencionan para cada especie citada, su nombre científico, el autor, a qué elemento corológico corresponde, nuestros comentarios (datos incluidos) y citas bibliográficas de diferentes autores.

This work on cormophytic vegetation mentions the geographical and biological situation of the studied area, as well as the general characteristics of its climatic, geological, geomorphological and edaphological aspects. Also explained are fundamental concepts and corological elements of the Flora and Vegetation, including a description of the main vegetable communities. Lastly, the plant catalogue gives, for each mentioned species, its scientific name, the author, to which corological element it corresponds, our comments (including data) and bibliographical quotes by different authors.

*Ez dakit garbi noiz
bainan, egun sentiarekin izango zen
Baztango bazterrak
isilka
nere logelan hasi ziren
hasi ziren
sartzen eta sartzen
lekurik ezak, nunbait
esnatu ninduen...
segituan jautsi nintzen nun nengoen
leihoa ireki nuen
eta emeki emeki
Baztango lurrean
Baztan baitan
Baztan izan nintzen*

(M. Laboa/J.A. Arze)

AURKEZPENA eta ESKERTZAK

Eskutartean duzuen ikerketa-lanak, bere funtsean, Baztan/Kintoa alderdiko katalogoa aurkeztu nahi du, berorrek, eskualde horretan aurkituriko landare-espezie desberdin guztiengi zerrenda eskaini eta laburbildu duelarik. Halaber, zonaren ezaugarriak ezagutaraztearen, azterturiko alderdiaren aspektu geologiko, klimatiko eta edafologiko orokorrak kontentatu dira.

Lanean barneratu aurretik, ikasketa honen elaboraziorako errekerituro laguntza eskaini didaten hurrengo guztiei nire eskerrik beroenak adierazi nahiko nizkieke:

Aranzadi Zientzi Elkarteko Botanika Saileko partaideei, batipat, Pilar Catalan, Iñaki Aizpuru eta Karlos Aseginolaza botanikoei, bereziki honoko arrazoiengatik: alde batetik, heurek animatu ninduten katalogo hau burutzera, eta berori elaboratzeko aukera eskaini zidatetako; bestetik, landare-espezieen identifikazio-lanerako premiazko laguntzagatik.

Eusko Ikaskuntzari: berorrek 1990. urterako diru-laguntza jasotzeagatik, batez ere, ikerketarako materialaren prestakuntzarako baliagarria izan delarik.

Unibertsitateko ikaskideei, bereziki E. Aranburu, L. Arregi, G. Imaz eta J. Larrañaga biologoei, irteeretako materialaren bilketa, eta ondoko prestakuntza eta sailkapen- lanetan laguntzeagatik.

Inazio Garin biologoari: bereziki ikerketaren elaboraziorako premiazkoak izan diren material-bilketarako irteeretara etortzeaz gainera, landare-espezieen sailkapen- eta identifikazio-lanetan, bai eta datuen tratamenduan eta lanaren diseinuan ere aparteko laguntza eskaintzeagatik.

Arantza Aranburu, EHU-UPV-ko Estatigrafia, Geodinamika eta Paleontología saileko partaide den geologoari, Baztan/Kintoa alderdiari buruzko informazio geologiko baliagarria eskaintzeagatik.

«Instituto Navarro de Suelos»-eko ikerlariei, berorien jarrera jatorragatik eta oraindik argitaratu gabeko datuak proportzionalatzeagatik.

AURKIBIDEA

1/ SARRERA: KATALOGOAREN EGITURAKETA OROKORRA ...	235
a) Sarrera: Aipamen historikoa.....	235
b) Helburuak.	236
c) Metodologia orokorra.....	237
d) Lorturiko emaitzak.....	237
2/ KOKAPEN GEOGRAFIKO ETA BIOGEOGRAFIKOA	238
3/ ASPEKTU GEOLOGIKOAK: Substratu geologiko eta litologikoa	240
4/ ASPEKTU GEOMORFOLOGIKOAK: Egungo morfogenesia	240
5/ EGUNGO ASPEKTU KLIMATIKOAK	240
a) Zonaren ezaugarri klimatiko orokorrak.	240
b) Bioklimatologia.	241
6/ ASPEKTU EDAFOLOGIKOAK: Lurzoruaaren ezaugarri orokorrak	245
7/ FLORA BASKULARRA	245
a) Sarrera.	245
b) Helburuak.	246
8/ LANDAREDIA: Landare-komunitate nagusien aipamena eta deskripzio laburra	249
9/ KATALOGO FLORISTIKOA	252
a) Katalogoaren egituraketa: ulermenarako azalpen laburra	252
b) Katalogo floristikoa.	253
c) Espezie interesgarrienen banaketa geografikoa (Mapez ilustraturik)	367
10/ BIBLIOGRAFIA	374

1/ SARRERA: KATALOGOAREN EGITURAKETA OROKORRA

a) Sarrera: Aipamen historikoa

Lanaren izenburuak adierazi duen modura, ikasketa honen funtsa katalogo floristikoaren buruketan datza. Hasi aurretik, katalogoa berbak, zehazki zein kontzeptu laburbilten duen argitzea komenigarria dela deritzogu. Ikasketa-eremuan zeharreko irteera ugaritako behaketedako datuetan oinarrituz, landare-espezie desberdinak zerrendatzean datza katalogoa, eta edozein taxonek Lurrean extentsio determinatua betetzen duenez, berorien banaketa-area deskribatzen da, ondorioz, Floristika landuz (hots, Korologia edo banaketa-arearen ikerketa): hots, hitz bitan adieraztearen, ikusitakoa aipatu eta behaketen oinarrituz mapak eraikitzea.

Zergatik Baztan/Kintoa Iurrealdea?

Gaur egungo landaredi-azterketen helburu nagusia, Euskal Herriko Floraren osoketa dela onar daiteke; orohar, egun burutzen ari diren ikerketa gehienak hortan oinarritzen dira.

Dakigunez, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Landare-Katalogoa (Aseginolaza & al., 1985) aurkezu da jada, inguru horiek ongi aztertutik gelditu direlarik. Dena den, oraindik ere, Nafarroa sakonki aztertu gabeko Iurrealdea dugu, nolabait esateko, Landarediaren ikerketa-mailan, landu beharreko probintzia dela kontsidera daiteke. Lan honetan, Nafarroako Landarediaren arloan dagokion ezagupen-maila zabaltzen eta hedatzen saiatu gara.

Aurretik, Historian zehar egin diren Nafarroako Baztan alderdiari buruzko lanen bibliografia arakatuz, ikasketa garrantzitsuena aurreko mendean (XIX.ean) Lacoizqueta apezak burutu zituela idoro dugu, «Catálogo de las plantas que espontáneamente crecen en el Valle de Bertizarana» izenburupeko liburua osotu zuelarik (1883-1885); berori, zonako floraren izaera ezagutzeko eta ulertzeko funtsezko suertatu da. Horregatik, autore honen aparteko ikerlanak aipamen berezia merezi du.

Geroztik, beste zenbait autorek azterlanak burutu dituzte Nafarroan zehar, eta horietako batzu aipatzea derrigorrezkoa dela deritzogu.

Alde batetik, Bubani (1897-1901) ikerlearen Pirinioei dagokien 4 tomotako Flora Pyrenaea obrak, aztertutako zonan topaturiko zita batzu aipatzen ditu, ikerlan hori Bizkaiaren Mendebalderaino hedatzen delarik.

1913an, F. Gredilla ikerlariak, Euskal Herriko zenbait eskualdetako zita floristikoen bilketa burutu zuen, bertan Nafarroako ugari agertzen direlarik.

Mende honen bigarren erdi-aldean, J. Braun-Blanquet (1967) ikerlariak Euskal Herri-

ko Landarediari buruzko konklusioak argitaratu zituen, buruturiko inventarioetan espezie berri ugari aipatuz.

Duela denbora gutxi, Bascones (1978) ikerlariak, Ipar mendebaldeko Nafarroa Heze-ko Katalogo Floristiko zabala elaboratu zuen, gure zona inguruko landaredia aztertuz.

1981ean, Pilar Catalan ikerlariak, Bidasoa Haranaren amaierako tramura murrizturiko azterlana burutu zuen, ondoren, ikerlan hori, I. Aizpuru eta P. Catalanek zuzenduz eta gehiago landuz, 1985ean plazaratu zelarik.

Urte horretan bertan, C. García & al.-en Mendaurren Mendizerraren flora baskularrari buruzko ikerlana argitaratu zen (1985), berorretan, autoreak 1980an egituraturiko Katalogo floristikoa inkludituz.

Azkenik, 1987an, P. Catalan botanikoaren Tesi doktoralak, Bidasoa/Urumea arroan (Nafarroako NW/Gipuzkoako NE) eta Artikutza arroan (Nafarroako N) osoturiko ikerketa-lana eskaini du, gure lurralderako flora baskularren ezagumendurako oso baliagarria suertatu delarik.

b) Helburuak

Ikerlanari ekin aurretik, funtsezkoa da lortu nahi diren helburuak argiro zehaztea. Gure kasuan, helbururik nagusiena, Euskal Herriko landarediaren ezagumenduaren hedapenean laguntzean datza, batipat landare-komunitate autohtonoei buruzko ezagumendu maximora heltzeko. Hala da, dagoeneko gure ingurune naturalak jasandako hustirapen- eta endakanpen-prozesua (giza eraginaren ondorioz batez ere) nabarmena dela eta, guztiz komenigarria da zein motatako landaredia dagoen jakitea, zer kontserbatu behar den jakiteko. Horretaz gainera, edozein eraiketa-projektuk exigituriko lurralte-antolakuntza burutzeko, guztiz beharrezko da ingurunea ongi ezagutzea eta bertan zer hazten den jakitea. Horretarako, Katalogo floristikoaren elaborazioa oso baliagarria dela konsideratu dugu.

Bestalde, Nafarroako Katalogo floristikoaren elaboraziorako, komposizio floristikoari eta ezaugarri ekologikoei buruzko informazio baliagarria aportatzea litzateke hurrengo xe-de aipagarriena. Halaber, Euskal Herriko Floraren buruketan lanean ari diren ikerlariantzat honelako lanak lagungarriak eta aurrerakoiak bilakatuko direlakoan gaude, beraien formazio botanikoa zabalduz.

Azkenik, lorturiko ikasketa-mailaren arauera, orain arte zona honi buruz ezagutzen diren azterketa botaniko eta ekologikoen osoketa burutzea, hots, ahal den neurrian informazio hori gaurkotzean datza lan honen azken helburu azpimarragarria. (Batez ere La-coizquetaren ikerketari dagokiarik).

*Arazoak eta sailkapenari buruzko zenbait ohar.

Lanaren ihardueran zehar topaturiko arazo larrienak, identifikazioan suertatu dira, batez ere sailkapenerako gakoetan errekeritiriko organo eta zati begetalen ezagatik,edoeta, lagina egoera desegokian prestatuta egoteagatik.

Horretaz gainera, landareen identifikazio- eta sailkapen-lanetan, zenbait talderen azterketa guztiz sakondu gabe geratu da, sistematikoki oso konplikuak bait dira, eta beraz, espezialistek burutu beharreko azterketa dela deritzogu: adibidez, *Euphrasia*, *Rubus*, *Festuca*, *Viola* eta *Hieracium* generoak besteak beste. Hohen ondorioz, herbario-ale batzu, ikerketa-alderdian jaso ditugun arren, zalantzazko sailkapena dutenez, ez ditugu katalogoan aipatu.

c) Metodologia orokorra

Jakina denez, Katalogo floristikoaren elaborazioaren oinarria, azterketa-eremuan ja-sotako materialaren identifikazioak osotu du.

Material-bilketarako eta ikerketarako laginen lorpenerako, loraketa/fruktifikazio-garai edo urtesasoi egokienetan (udaberria/uda/udazkena) buruturiko herborizazio-lanei ekin zitzaien, horretarako azterketa-eremura irteera ugari zuzendu zirelarik; dena den, ikuspegi floristikotik interes nabarmena azaldu duten alderditaranzko irteerak maiztasun handia-goz burutu ziren.

Landa-lanetan, landare-espeziearen inguruneari buruzko datuak zein datu floristikoak jasotzeaz gainera, beste datu erlatibo batzu ere hartu ziren, hala nola lokalitatea, altitudea, ekologia edo habitataren deskripzio laburra, UTM sistemaren 1 Km-tako kuadrikula, bilketa-data, guzti horiek, taxon bakoitzaren banaketa-area eta baldintza ekologikoen deskripziorako premiazkoak bait dira.

Irteeratako materialak, herbario edo landare-bildumarako ale bilakatzeko aurrepresentakuntza errekeritzen duenez, lehorketa-prozesua aplikatu eta ondoren, etiketak diseinatu ziren, berorietan landan jasotako datu guztiak zehaztu zirelarik. Hurrengo urratsa, taxonen determinazio edo identifikazioari dagokio, horretarako Flora eta egungo monografiak era-biltzeaz gainera, kontrastazioa eta errebisioa burutzearen, Aranzadi Herbarioko landare-aleak ere kontsultatu zirelarik.

Halaber, bibliografian aipaturiko obrak arakatuz, azterketa-eremuko eta inguruko zita floristikoak konprobatu ziren; horietariko batzuren presentzia baieztaturik geratu bada ere, beste batzurena zalantzazkoa kontsidera daiteke.

Horrela, espezieen determinazioaren emaitzetan, datuen ordenazioan eta zita bibliografikoetan oinarrituz, Baztan/Kintoa alderdiari dagokion Katalogo floristikoa elaboratu zen.

d) Lorturiko emaitzak

Hurrengo Ierroetan, ikerlanean lorturiko emaitza nagusienak laburbildu dira:

1/Nafarroaren NE-alderdiko Katalogo floristikoaren elaborazioa:

- Herborizaturiko ale-kopurua (hots, katalogoa soilik aipaturikoak, eta horretaz gainera, dagokien zenbakia > 0 duten pliegoen kopurua): 1386.
- Espezie desberdinien kopurua (Zita bibliografikoak inkluditu gabe): 502.

2/Alderdi horretako Floraren izaeraren ezagupena eta deskripzio orokorra. Elementu eurosiberiar eta atlantikoaren nagusitasuna sendartu da, espero zitekeen modura, horixe adierazi bait dute elementu korologikoen mota usuenek. Halaber, orofito eurosiberiar eta endemiko peninsularren presentzia nabarmena azpimarra daiteke, beroriek alderdi horretako floraren interesa emendatu dutelarik. Elementu mediterraniarra ere ez da falta, ugarriak ez badira ere espezie horiek Baztan/Kintoan. Azkenik, elementu definituren batetan ezin sar daitezkeen espezieen kopurua altu samarra suertatu den arren, ahalegindu gara bibliografi-kontsulten bidez zerrenda osotzen, baina arrakasta handirik gabe (Ikus Elementu Korologikoen portzentaiei dagokien irudia).

3/Burutzen ari diren eta oraindik argitaratu gabe dagoen Nafarroako Katalogo floristikoa (E.H.-ko Flora) projektuaren osoketarako laguntza.

4/Landare-espezie batzuren banaketa-areaek, adierazpen grafikoen bidez adierazi dira katalogo floristikoaren ostean (Ikus mapak); beroriek, alderdiko espezie interesgarri eta aipagarriak direla deritzogu, horretaz gainera, azken bitan, Baztan/Kintoan duten banaketa-area ezezik, Penintsulan eta Europan dutena ere azaldu dugularik (*Prunus lusitanica* eta *Soldanella villosa* espezieen kasuak hain zuzen ere).

5/Baztan/Kintoan topa daitezkeen inguruneko baldintza fisiko zein ekologikoei buruzko informazioaren hedapena.

6/Azterketa-eremuaren mapa geologiko orokorra.

7/Azterketa-eremuari dagozkion ezaugarri klimatiko orokorrenen azalpena: diagrama onbrotermikoa (Eugi/Kintoa eta Doneztebeko estazio meteorologikoei dagozkienak). Ha-laber, aipaturiko estazioetako lau urtaroetako prezipitazio-portzentaia desberdinak adierazi dira grafikoen bidez.

2/ KOKAPEN GEOGRAFIKO ETA BIOGEOGRAFIKOA

Ikasketa-eremuaren kokapen geografikoa:, Hegoaldean, Urkiagako errepideak, Eungi urtegiak eta Erregerenatik Benta Kemadarainoko lerroak markatzen du muga; Ekialde eta Iparraldean, Ipar Euskalerriarekiko sasimugak; eta Mendebaldean, Belate Gainako karri-multzoa izan ezik, mendaterako errepideak markatzen du Oronoz-Mugairaino, bertatik, eta Legatetik igaroz, Peña Plataraino.

Mugapen hau, ondoko udalierrien barnean kokatuta dago: Baztan, Zugarramurdi, Urdax eta Esteribar.

Eskualde menditsua izaki, Kintoako mendi-multzoa da aipagarri, bertako mendi hauekin batera: Okoro (1259 m), Argintzo (1213 m), Lohiluz (1220 m), Erregerena (1247 m) eta Zuria (1410 m); beroriek, Bidasoa ibaiaren sorburu den Baztan errekkaren harana gordetzen duten Legate (871 m), Autza (1306 m) eta Gorramendi (1374 m) mendiekin batera konfiguratzene dute tontor nagusien zerrenda. Punturik altuena Saioa mendia dugu 1419 m-z, bertatik azterketa-markuaren ikuspegi bikaina lortuz.

Errekak hiru aldetan bereiz daitezke, amaitzen diren inguruaren arauera: batetik, eta Hegoaldetik Iparraldera, Eugi urtegira doazenak; Baztan harana drenatzen dutenak bigarrenik; eta azkenik, Urdax eta Zugarramurdiko inguruak drenatuz Iparraldean barneratzen direnak, Bidarrairantz doazen Urrizate eta Aritzakun erreken modura (Ikus 239 orrialdeetako mapa).

Kokapen biogeografikoari dagokionez, Baztan/Kintoa lurrealdea horrela sailka daiteke:

Erreinua: Holartikoa.

Eskualdea: Eurosiberiarra.

Subeskualdea: Atlantiko/Ertaeuropearra.


Superprobintzia: Atlantikoa.

Probintzia: Kantauriar/Atlantikoa.

Subprobintzia: Kantauriar/Euskalduna.

Sektorea: Kantauriar/Euskalduna.

Subsektorea: Euskaldun orientala.



3/ ASPEKTU GEOLOGIKOAK

Kintoari dagokionez, bertan azaleratu diren materialak Paleozoiko garaikoak dira, estaldura post-Hertziniarraren gainetik irteten direlarik, orogenia Alpetarraren eraginez. Izan ere, Pirinio axialaren Hertziniar garaiko materialak dira, hauek, Euskal Herrian nagusi diren Mesozoiko garaiko sedimentupean desagertzen direlarik. Karbonifero eta Behe-Deboniko garaietako materialak dira nagusi Kintoan, Bortziriko harri permotriaskoengandik banatzen direlarik.

Materialen banaketa ikusiz, Iparraldean Karbonifero garaiko materialak agertzen dira, eskistoak direlarik nagusi.

Deboniar garaiko eskisto (Ikus Nafarroako Atlasa) eta Kuartzitak, eta Permotriasko garaiko harearri eta konglomeratuak dira materialik zaharrenak Baztanen.

Ofitazko zenbait gune ere azaleratu dira, karearrizko beste batzuren moduan, Jurasiako garaikoak hauek. Aipatzeko da ere, Zugarramurdin ikus daitekeen «flysch»a.

4/ ASPEKTU GEOMORFOLOGIKOAK: Egungo morfogenesia

Orokorean, Nafarroan hiru eskualde geomorfologiko nagusi bereiz daitezke, hala nola, Nafarroa hertziniarra, Nafarroa piriniarra eta erriberako Nafarroa hain zuzen ere. Horien artekik, Baztan/Kintoari dagokion eskualdea lehena da, Nafarroa hertziniarra alegia: berorren osagileak, Bortziri eta Kintoa mendiguneak dira, bi hauek, Baztango triasikoko ildoak elkarrengandik bereizten dituelarik, eta horiekin batera, Irati haraneko Oroz Beteluko afloramentu paleozoiko txikia ere ageri da. Egitura alpetar/piriniarren artean duen kokapena dela eta, orogenia alpetarrez birgazteturiko mendigune hertziniar gisa kalifika daiteke, eta ondorioz, Pirinio axialeko hertziniar garaiko segmenturik okzidentalena kontsidera daiteke. Kantauri Itsasoarekiko hurbiltsasuna dela eta, euriztapen bortitz jausatzen duen eskualdea denez, aldapa longitudinal handiko erreka txikiez osoturiko sare flubialak taiutzen eta drenatzen ditu mendiguneen arteko haranak, berorian maila basikoa kostalde gipuzkoarrean dutelarik.

Disekzio flubialak, urrats estruktural guztiak ezabatu eta erosio-azalera pretriasikoa suntsitu ditu. Erliebe estruktural aipagarri bakarrak, geruza kuartzitikoen afloramentuetara atxekiturik ageririk dira Kintoa mendigunean hain zuzen, non altuera handieneko tontorrak (Adi, 1459 m) kokatzen diren, bai eta plaka isolatutan paraturiko permotriaseko harearri eta konglomeratuzko azalera estrukturalak ere, azken hauek mendigunearen tegumentua osotzen dutelarik.

Inguruko maldak 10-20%ko batazbestekoa dute, nahiz eta Kintoan 20%tik gorako anitz gune aurkitu, Nafarroako Pirinioen antzera.

5/ EGUNGO ASPEKTU KLIMATIKOAK

A/ Zonaren ezaugarri klimatiko orokorrak

Itsasoarekiko gertutasunak eta orografia aldakorrak baldintzatzen dute eremuko makroklima.

W-NW jatorriko haizeek, hezetasunez zamaturiko fronte atlantiko konstanteak bultzatzen dituzte. Fronte euritsuak, dezamatuz doaz barnerako bidean, gure eremu honetan

estankatzeko joera azalduz. Horraz, prezipitazioak ugariak dira fronte euritsuari ibilbidea ixten dioten mendien magalean. Doneztebeko behatokian, Penintsula Iberikoko prezipitazio-tasa handienak biltzen dira.

Ikasketa-eremu guztiko urteko batazbesteko prezipitazioa 1600 mm-tatik gorakoa da eta eskualde honen azaleraren 45%k 2000 mm baino gehiago jasotzen du, gainera euriztapen-egunak, 160 baino gehiago dira urteko. Beraz, eskualde horretako onbroklima, orohar, hiperhezea dela esan daiteke, P>1400 mm bait da (Rivas-Martínez, 1987). Datu hauek, euriztapen-maila itzelaren lekuko dira. (Ikus 242, 243 eta 244 orrialdeak).

Malden orientazioak lokalki eragiten du: Mendebaldekoak hezeagoak dira orohar, eta lainopean daude epe luzez.

Foehn efektuak eragin eskasa du zonan. Fronteak hezetasunez beterik heldu eta intentsuki dezamaten diren arren, ur asko garraiatzen dute barne-alderantz. Horrek, orientazio desberdinako malden arteko aldaera, euriztapenari baino, eguzkiztapenari dagokiona esangura dezake. Kontutan hartuz gainera, eguzkiztapen-egunen kopurua Penintsulako baxuena izanik ere, klima ozeanikoko Europako lurrardeena behatuz, nahikoa altua da. Abendua da hilik lainotsuena, Uztaila aldiz, garbiiena.

Temperaturari dagokionez, urteko batazbestekoak nahikoa aldakorrak dira mugape honetan; alde batetik, erreka- eta ibai- arroak, mendi-aldea bestetik. Extremo bat Bidasoaren arroa da, berorrek eskualdeko temperatura epelenak jasaten dituelarik; bestea Kintoa da, Pirinioan jazoten diren temperaturetarra parekatzen direlarik. Bestalde itsasoarekiko gertutasunak, kontinentaltasuna urrentzen du, oszilazio termiko txikia gauzatzen delarik.

Hezetasun-balantzearen ikasketak, hau da, prezipitazioa (P) eta ebapotranspirazioaren (ETP) erlazioak, zenbait urte sasoitan ur-defizita jazoten dela adierazten du; nahiz eta landareek urik ez jaso, urte osoz lurzoruan metaturikoa erabiltzen dute. Izan ere, larre eta soroek une lehorrenetan ere ez dute ureztapenik behar.

B/ Bioklimatologia

Bioklimatologia, izaki bizien (biología) eta klimaren (física) artean existitu daitekeen erlazioa aztertzen duen zientzia ekologikoa da. Bertan, biozenosiak eta espezieek mugatutiko erlazioetan oinarrituriko indize eta unitate desberdinak definitzen eta aplikatzen dira estadia bioklimatikoak deskribatzeko. Beraz estadia bioklimatikoak honela defini daitezke: kiserie altitudinal edo latitudinalean zehar gertatzen diren espazio termoklimatiko-motak dira (Rivas-Martínez, 1987). Temperaturazion altitudinal edo latitudinalaren fenomenoak jurisdikzio unibertsala du, eta eskualde biogeografiko bakoitzari, balore termiko partikularrez definituriko estadia bioklimatikoak dagozkio, aipaturiko baloreak, Termizitate-Indizaren (It) bidez kalkulatzeten direlarik.

$$It = (T + m + M) \times 10$$


non, T, urteko batazbesteko temperatura den; M, hilabete hotzenaren maximoen batazbesteko temperatura; eta m, hilabete hotzenaren minimoen batazbesteko temperatura. Indize horrek, urtesasoi hotzenean egin dezakeen hotz-intentsitatearen erreferentzia egiten du.

Gure azterketa-eremuan aurki daitezkeen estadia bioklimatikoak nagusiki hurrengo biak dira, bakoitzari dagozkion indize edo balore termikoak adierazi direlarik (Celsius gradutan):

a/Estaia muinotarra: $T > 10$, $m > 0$, $M > 8$, $It > 180$.


b/Estaia menditarra: $T = 6-10$, $m = -4-0$, $M = 3-8$,
 $It = 50-180$.

DONEZTEBE




DONEZTEBEKO URTAROETAKO P-ren %


Negua=> Udazkena=> Udaberria=> Uda



EUGI/KINTOA



EUGI/KINTOAKO URTAROETAKO P-ren %
Udaberria=> Negua=> Udazkena=> Uda



«DATUEN TAUZA»

HILABETEA	Eugi T	Eugi P	Doneztebe P	Doneztebe T	Eugi P%	Doneztebe P%'
1 URTARRILA	3.2	177.5	209	7.2	8,301	11,285
2 OTSAILA	4.2	196.6	175	7.5	9,195	9,449
3 MARTXOA	5.8	212.2	159	10.4	9,924	8,585
4 APIRILA	7.7	243.5	163	11.6	11,388	8,801
5 MAIATZA	10.8	174.2	145	15.4	8,147	7,829
6 EKAINA	14.6	109.9	98	18.7	5,140	5,292
7 UZTAILA	17.5	68.4	70	20.4	3,199	3,780
8 ABUZTUA	17.4	113.0	67	20.8	5,285	3,618
9 IRAILA	15.3	138.3	137	19.2	6,468	7,397
10 URRIA	11.1	201.9	187	15.7	9,443	10,097
11 AZAROA	6.6	253.2	210	10.5	11,842	11,339
12 ABENDUA	4.3	249.5	232	7.7	11,669	12,527
13 Udaberria					29,665	25,215
14 Uda					17,624	12,690
15 Udazkena					27,653	28,833
16 Negua					29,469	32,261

6/ ASPEKTU EDAFOLOGIKOAK

a) Lurzoruaren ezaugarri orokorrak

Baztan/Kintoako lurzoru-mota RANKER erakoa da nagusiki. Iruñeako arrotik Iparralderantz, bai ofita bai harearrien gainean ezarra dago Rankerra. Ofita gainekoek A horizonte mardula dute, kolore iluneko eta edukin organiko handikoa. Afloramenduok kokaturiko areek jasoten duten euriztapena gogorra den arren, pH-a neutrotzat har daiteke, arrokatik intentsuki askatzen diren baseak direla eta, prozesu horrek aldaketa-konplexuaren saturazioa ondorioztatzen du larrik. Lurzoru arreetara asoziaturik dago beti, berorien artean batak edo besteak predominatzen du larrik topografiaren arauera. Asozia-zio nagusiena pagadi oligotrofoak dira, maiz larreek artifialki ordeztu.

Triasikoko harearri eta margen gainean garaturiko Rankerrak honako ezaugarriak aurkezten ditu: izugarriki mardula den A horizontea (0,5m-tik 1m-erakoa), bortizki desaturatiko moder humusa, eta are mor motakoa ere batzutan, eta azidotazun handia (pH = 4-5). Antigoaleko basoak moztzen dituzten lekuetan, anitzak beroriek, lurzoruaren azidifikazio oso gogorrera eraman duten erikazeoek ordeztu dute basoa.

Laburbilduz, lurzoru-unitate batzu aipatuko ditugu, gure azterketa-eremuan arrunte-nak direlarik:

- Iparraldean: Ranker.
- NWan: Ranker eta lurzoru arre azidoa.
- Ekiadorean: alde batetik, lurzoru arre azidoa, lurzoru arre modala, eta karrizko lurzoru arre modala; bestetik, kararrizko lurzoru arre modala eta lurzoru arre modala.
- Hegoaldean (Kintoa inguruan): Ranker eta litolurzorua.
- SWan: lurzoru arre garbitua, berori ahulki podzolizatuta dagoena.
- Mendebaldean: lurzoru arre garbitua eta andolurzoru humifero desaturatua, rankerra eta lurzoru arre modala nahasturik.

7/ FLORA BASKULARRA

a) Sarrera: Zenbait kontzeptu

Edozein lurraldetako Flora, zentzu orokorrean esanda, bertan bizi diren landare-espezie guztiak osotzen dute. Landare-munduaren konplexutasuna eta giza mugak direla eta, ikerlariek «landare-taldeak» deskribatzera jo dute, hala nola, Flora fungikoa, Flora briofitikoa, Flora baskularra. Landare-paisaiaren konfigurazioari dagokionez, landare baskularrak dira garrantzitsuenak.

Edozein lurraldetako Landaredia, landareak elkar biltzen direneko taldeek osotzen dute; agrupazio edo landare-komunitate horiek, konposizio floristiko, egitura, eta fisionomiaren arauera bereizten dira elkarrengandik, eta horretaz gainera, baldintza historiko zein ekologikoaz baldintzaturik eta determinaturik bizi dira. Horrela, giza iharduera eta baldintza ekologiko eranitzen arauera, landarediak, mosaiko-itxura aurkezten du.

b) Elementu korologikoak

Jakina denez, Lurrak, espazioan duen hididura-mota eta formaren ondorioz, oso ongi definituriko klima-gradazioa aurkezen du. Baldintzaren historikoez gainera, klimatikoek ere, funtsezki temperatura eta prezipitazioak, landareen banaketaren gainean eragiten du-te, horrela, espezie bakoitzari bere banaketa-area dagokiolari.

Antzeko ezaugarri klimatikoak dituzten Lurreko eskualdeek, pareko eskaera ekologiakoak errekeritzen dituzten landareak jaso dituzte, eta landareen area indibidualek zehazki kointziditzen ez duten arren, posiblea da inguruneko parametro fisikoekin eta berori habitatzen duten izaki bizien artean, paralelismo argia somatzea. Horrela, elementu korologikoaren kontzeptua definitu da (landareen kasuan, fitogeografikoa delarik). Suposa daitekeenez, elementu korologikoien izenek, landare-espezie konkretu hori nagusi deneko eskualde biogeografikoarekin kointziditzen dute: beraz, elementu korologikoaren izena orohar, landare-espezieari dagokion banaketa-areaaren erreferentzia zuzena da. Elementu kontzeptu hori, Dupont (1962) ikerlariari dagokio, non arlo geografikoa, gainontzeako (genetikoa, historikoa eta migratorioa) baino esanguratsuagoa den. Kausa historikoak, geografikoak, geologikoak, edafikoak, direla eta, eskualde biogeografiko konkretu batetan elementu korologiko konkretuko landareak soilik hazi gabe, nagusiena denarekin batera, beste zenbait elementu korologiko eranitzetako landareek ere habitatzen dute.

Baztan/Kintoa alderdian konkretuki, banaketa atlantikoko landare-espezieak dira ugarienak: beraz, elementu zirkunboreal eta eurosiberiarak nagusitzen dira. Aldiz, elementu mediterraniarra zona faboragarri urrietara murrizturik geratzen da (Eugiko urtegira iristen direnak). Izaera atlantikoko landarediaren nagusitasuna erraz explika eta uler daiteke, klima-fenomenoak eta Euskal Herriko orografia nolakoak diren ezagutuz. Euskal Herriko Mendiek (Kintoa inkludituz), Pirinioen eta Kantauriko Mendikatearen arteko igarobidea osotzen dute. Horrela, NWtik datozen haize-fronte hezeak Euskal Herriko Mendiak gainditzeko goratzen direnean, euria suertatzen da isuralde atlantikoan, euriztapena oso nabarmena eta urte osoan zehar nahikoa uniformea delarik. Laburki, hauxe da ur-dibisiorak (mendi-multzoak) betetzen duen paper importantea. Behin mendi-langa hori gaindituz gero, alde meridionalerantz jotzen badugu, klimaren kontinentalizazioa nabarmenagoa dela soma daiteke, euriztapena murriztu egiten bait da isuralde mediterraneearrean.

Bestalde, Urritate haranak, nahiz eta Pirinioak baino dimentsio eta altitude erlatiboki txikiagoak dituen, espezie piriniar/kantauriarak jaso ditu, adibidez *Petrocoptis* genero endemikoa.

Gure azterketa-eremuko elementu batzuren adibideak laburki aipatuko ditugu; dena den, Katalogo floristikoa osotu duten landare-espezie guztietai, dagokien elementu-mota zehaztu dugu, batipat Allorge (1924), Dupont (1962) eta Roisin (1969) ikerlarien lanetan oinarrituz. Aipatu behar dugu, elementu atlantikoko subdibisioaren interpretazioarako Roisin (1969) ikerlariaren kontzeptuari jarraitu gatzailkiola, berori, landareen banaketa-arearen muga geografikoei dagokienez, hain hertsia ez delarik; horrela, Allorgek (1924) proposaturiko elementu mediterraniar/menditarra eta endemismo piriniar/kantauriarak, berezko talde gisa konsideratu ditu; Dupontek aldiz, elementu euatlantiko edo subatlantiko gisa onartu ditu.

Baztan/Kintoan, landare euatlantikoen presentzia nabarmena da, berorien banaketa-areek domeinu atlantikoa gainditzen ez dutelarik.


1/ Elementu EUROSIBERIARRA (Bolós & Vigo, 1984) (atlantikoa, Dupont & Roisin).

- * Subelementu EUATLANTIKOA: Dupont (1962) eta ondoren Roisin (1969) ikerlarien arauera espeziearen banaketa-arean oinarrituz, 4 talde bereiz daitezke:
 - ** Banaketa-arearen hedapena: Penintsula Iberikoa (P.I.) => Frantziaren NE. Adibidez: *Scilla verna*, *Sedum anglicum*, *Ulex europaeus*, *Hypericum elodes*, *Erica tetralix*, *E. cinerea*, *Wahlenbergia hederacea*, *Carex binervis*. (Roisinen arauera, «lateatlantikoak» deritez).
 - ** Banaketa-arearen hedapena: P.I. => Irla Britaniarrak. Adibidez: *Daboezia cantabrica*, *Ulex cantabricus*, *Erica vagans*, *Meconopsis cambrica*, *Saxifraga hirsuta*, *Pirus cordata*, *Pinguicula lusitanica*, *Pulmonaria longifolia*, *Agrostis curtisii*.
 - ** Banaketa-arearen hedapena: P.I. => Frantziako kostalde atlantikoa. Adibideak: *Scilla liliohyacinthus*, *Potentilla montana*, *Genista occidentalis*, *Angelica razulii*, *Valeriana pyrenaica*, *Serratula seoanei*, *Cirsium filipendulum*.
 - ** Banaketa-arearen hedapena: P.I. Adibideak: *Soldanella villosa*, *Petrocoptis pyrenaica*.
- * Subelementu LATEATLANTIKOA (Bolós & Vigo, 1984) (Subatlantikoa, Roisinen arauera): landare-espezie hauek, maiztasun handiagoz domeinu atlantikoan agertzen badira ere, beronen mugak gainditzen dituzte zenbait puntutan. Hauetan ere, zenbait talde bereiztu zituen Roisinek, zeintuetan, Dupontek subatlantiko eta atlantiko/mediterraniar gisa kontsideratu zituen landare batzu inkluditzen bait dira. (Ez nahastu lehen aipaturiko Roisinen «lateatlantiko» kontzeptuarekin).
 - ** Subatlantikoa «in sensu stricto»; Banaketa-arearen mugak: domeinu atlantikoan zehar barreiatutako espezieak, batzutan eskualde mediterraniarreko enklabe puntualetan sartzen direlarik. Adibideak: *Hypericum pulchrum*, *Lysimachia nemorum*, *Digitalis purpurea*, *Teucrium scorodonia*, *Scutellaria minor*, *Pedicularis sylvatica*, *Pinguicula grandiflora*, *Chrysosplenium oppositifolium*, *Centaurea nigra*, *Senecio aquaticus*,...etab.
 - ** Irradiazio mediterraniarrak dituzten espezie subatlantikoa. Adibidez: *Arenaria montana*, *Carum verticillatum*, *Chamaemelum nobile*, *Lathraea clandestina*, *Avenula sulcata*.
 - ** Espezie atlantiko/mediterraniar/menditarra; berauen area atlantikoa, eskualde mediterraniarreko zona menditsu eta erlatiboki hezeetaraino hedatzen da (Roisin). Adibidez: *Ilex aquifolium* eta *Primula vulgaris*.
 - ** Espezie atlantiko/mediterraniarrak; berauen area nagusia atlantikoa den arren, arro mediterraniaren Wranzko hedadura nabarmenak aurkezten dituzte. Adibidez: *Anagallis tenella*, *Scrophularia auriculata*, *Illecebrum verticillatum*, *Salix atrocinerea*.

Espezie atlantikoek, Allorgek (1941) dioenez, preferentzia oligotrofoak aurkezten dituzte, orohar altitude baxutako (estaia muinotarra) espezieak dira, eta gehienetan honoko landare-komunitateak osotzen dituzte: otalurrak, hantzadiak eta harizi oligotrofoak.

- * Subelementu PIRINIAR/ATLANTIKOAK eta ATLANTIKO/MENDITARRAK.
 - ** Piriniar/kantauriarrak; Kantauro Mendikateko espezie endemikoei dagokie, gure kasuan, *Petrocoptis pyrenaica* eta *Soldanella villosa* hain zuzen ere.

ELEMENTU KOROLOGIKOEN PORTZENTAIAK



Elementua	kopuruak	portzentaia
Kosmopolita	32	6,653
Subkosmopolita	38	7,900
Eurosiberiarra	223	46,362
Atlantikoa	15	3,119
Subatlantikoa	15	3,119
Atlantiko mediterraniarra	4	0,832
Mediterraniar/atlantikoa	10	2,079
Submediterraniarra	12	2,495
Mediterraniarra	20	4,158
Endemiko penintsularra	13	2,703
Orofito eurosiberiarrak	14	2,911
Foraneoa	9	1,871
Orofito mediterraniarra	3	0,624
Borealpetarra	4	0,832
Orofito atlantikoa	1	0,208
Elementu definitu gabekoa	68	14,137

- * Subelementu ERTAEUROPEARRAK; belatze eta larre altimendarretako basa-belar ugari eta zuhaitz garrantzitsuei dagokie: berauen maiztasuna ia atlantikoena bezain altua dela esan daiteke. Adibidez: *Quercus robur*, *Fagus sylvatica*, *Fraxinus excelsior*, *Acer campestre*, *Euphorbia amygdaloides*, *Arum maculatum*, *Geranium phaeum*, *Mycelis muralis* eta *Meum athamanticum*.

Beraz, Baztan/Kintoan eta Euskal Herrian orokorrean, taxon-kopuruari dagokionez, ugarienak espezie zirkunboreal/eurasiatiko/euroasiatiko (Allorge, 1941) edo area zaba-leko espezie omniesiberiarak dira, Bolós & Vigok (1984) elementu euroasiatirrean inkluditzen dituztelarik.

2/ Elementu MEDITERRANIARRA: berez espezie eumediterraniarrak deritzenak ez dira gure alderdian topatzen, bakarren bat soilik, esaterako *Coronilla minima* (Eugiko urte-gan). Zenbait talde bereiz daitezke:

- * Espezie MEDITERRANIAR/ATLANTIKOAK: berorien banaketa-area nagusiki mediterraniarra izaki, eskualde atlantikora ere nahikoa maiztasunez sartzen direnak (Dupont, 1962) (atlantiko/mediterraniarren aurkakoak). Batez ere, belardi mesofilo, altitude baxuko baso fresko eta otalurretako espezieei dagokie. Adibidez: *Iris foetidissima*, *Ruscus aculeatus*, *Daphne laureola*, *Hedera helix*, *Tamus communis*, *Hypericum androsaemum*, *Arbutus unedo*, etab.

- * Espezie MEDITERRANIAR/MENDITARRAK: aintzineko taxon ugari aurkezten ditu talde honek, beroriek babesleku orofitoetara murriztuta geratu delarik, eta horregatik, glaziazioetan zehar desagerturiko estirpe mediterraniarretatiko eratorriak dira. Orohar, izaera kaltzikola azaltzen dute, eta harkaitz-arraildura eta larretan kokatzen dira. Adibidez: *Dianthus hyssopifolius*, *Erinus alpinus*, *Teucrium pyrenaicum*. Beste batzuk ordea, nahiago dituzte lurzoru oligotrofoak, esaterako *Senecio adonisifolius* eta *Saponaria ocymoides*.

3/ Elementu MAKARONESIKOA: subtropikoetako irla atlantikoetako espezie karakteristikoek osotzen dute. Lauroideo motatako basoetako landareak dira, klima epel eta hezea jasaten dutelarik. Adibidez: *Prunus lusitanica*.

4/ Elementu ENDEMIKOAK: gure alderdian, endemismo euskaldun/kantauriarra topatu dugu, *Soldanella villosa* alegia, beronen bikariante orientala *Soldanella montana* delarik.

Azkenik, jatorri eranitzeko landare-espezie exotikoak aipatu behar ditugu, azken mende honetan, komunikazioen aurrerapenak direla eta, neofito kanpotarren presentzia emendatua egin bait da; esate baterako, *Conyza canadensis*, *Robinia pseudoacacia*, etab.

8/ LANDAREDIA: LANDARE-KOMUNITATE NAGUSIENEN AIPAMENA ETA DESKRIPZIO LABURRA

Landarediaren ikerketarako oinarrizko unitatea, landaredi-komunitatea da, berori horrela definitu delarik: landare-multzoa, edozein lurrealdeko Floraren osogile dena, eta ingurune-baldintza homogeneotan elkar bizitzeko nahikoa hurbil kokaturik daudeneko landare-espezieak izateaz gainera, antzeko banaketa, ekologia eta konibentzia-gaitasuna aurkezten dutenaz osoturik dagoena. Beraz, komunitatean, konposizio floristikoari garrantzia handia ematen zaio. Landare-komunitate hauek ez dira «permanenteak», dinamikoak bai-zik, bakoitzak dagokion Landaredi-seriea formatzen duelarik.

Aipatu dugunez, Baztan/Kintoa alderdian, bi estaia bereiz daitezke; muinotarra (harriko oligotrofikoaren domeinua) eta menditarra (pagadi oligotrofaaren domeinua). Laburbil-duz, hurrengo hauek dira bertan topaturiko landare-komunitate aipagarrienak; horretarako, gure azterketa-eremuan sektorizazioa burutuko dugu, bi komarka natural bereitzuz:

a) Haran atlantikoak: isuralde atlantikoko batez ere. Mugak; franja litorala Ntik, Bortziri mendigunea Etik, Kantabria probintzia Wtik eta dibisoriako mendiak Stik.

b) Mendi septentrionalak: Kaurirako eta Mediterraniorako urak bereizten dituen ur-dibisoriako mendi-kateak.

Ezaugarriak:	(a)	(b)
Altitudea (m-tan)	20-600	600-1551
P (mm-tan)	1000-2000	1200-2600
T	U:epela	U:freskua
Zuhaitz nagusiak	N:izozterik gabe, freskua.	N:oso hotza
Paisaia gizatartua	Haritza (Artea)	Pagoa (Ametza)
	Belardiak	Larreak
	Koniferoak	Koniferoak

a) Haritzaren domeinua (Landaredi potentziala)

>Zuhaitz-formazioak: basoak.

- * Hostozabalen baso mixtoak (*Polysticho-Fraxinet excelsioris*).
- * Harizti azidofiloak (*Tamo-Quercetum roboris*).
- * Haltzadi (ibai ertzean).
- * Ameztia (oso urria): lurzoru lehor eta silizeotan (harearria).

>Formazio zuhaiskarak: sastrakadiak (ordezkapen-komunitateak):

- * Txilardi/otadi/iradi atlantikoa.
- * Arantzadi/lahardi.
- * Isats arruntezko multzoak (*Cytisus scoparius*).

>Formazio belarkarak (ordezkapen-komunitateak):

- * Segalbelardiak.
- * Laborantza-lurrik (atlantikoak).
- * *Brachypodium pinnatum*-ez osoturiko albitz-belardiak.
- * Larre mesofiloak.
- * Urteko landare efimeroen komunitateak (komunitate kolonizatzale edo aitzindariak).

>Beste zenbait:

- * Landaredi akuatikoa.
- * Iturburueta eta ospeleko landare-komunitateak. (Substratu silizeoen gainean).

- * Zoikaztegietako eta txilardi turbotsuetako komunitateak.
- * Belardi/Ihidia.
- * Megaforbioak.
- * Lautada-zona haresu eta hezeetako komunitate anualak.
- * Depresio inundagarri txikitako komunitateak.
- * Landaredi nitrofiloa eta antropogenoa:
 - Koniferoen birpopulaketak
 - Hostozabalen birpopulaketak
 - Zapalkuntzara moldaturiko komunitateak
 - Errepide bazterreko komunitateak
 - Baratzak eta laborantza-lurrak

b) Pagoaren domeinua (landaredi potentziala)

>Zuhaitz-formazioak: basoak:

- * Pagadi azidofiloa (*Saxifraga hirsutae-fagetum*).
- * Ameztia (oso murriztua).

>Formazio zuhaiskara: sastrakadia:

- * Txilardi goi-menditarra.
- * Arantzadia (baso-orla).
- * Txilardi/otadi/iradia.
- * Tontor silizeotako txilardia.

>Formazio belarkarak:

- * *Brachypodium pinnatum*-ez osoturiko albitz-belardiak.
- * Belardi menditarra (alatua).
- * *Agrostis curtisii*-z osoturiko larre silzikola.
- * *Nardus stricta*-z osoturiko larre menditarrak.

>Beste zenbait:

- * Harkaiztegi silizeotako komunitateen konplexua.
- * Legarretatako komunitateak.
- * Urteko landare efimeroen komunitateak.
- * Haltzadi oligotrofoa (urari lotuta).
- * Sahastia.
- * Espagnuzko zoikaztegiak.
- * Ihidi azidofiloak.
- * Txilardi turbotsua.

9/ KATALOGO FLORISTIKOA

a) Katalogoaren ulermenerako azalpen laburra

Katalogo floristikoan aipaturiko landare-espezie bakoitzak, hurrengo atal desberdinak zehazturik azalduko ditu:

1/ Baztan/Kintoa alderdian bildutako espezieei dagokienez:

- * Taxonaren gaur egungo izen zientifikoa eta autorea/k.
- * Zein elementu korologikori dagokion.
- * Laginaren herbarioko zenbakia, jarraian udala eta toponimoa adierazi direlarik.
- * Landarearen kokapena, UTM sistemako kuadrikulatan adierazita.
- * Landare-espezie bakoitza aurkitu deneko puntuaren altitude-maila Baztan/Kintoan.
- * Ekologia: espeziearen habitataren ezaugarri orokoren deskripzioa, zenbait kasantan komunitate begetala/k, substratua/k, geomorfologia, faktore klimatikoak eta inguruneko ezaugarri bereziak (mikroklima,...) zehaztuko direlarik.

2/ Aurretiko zita bibliografikoei dagokienez (beste autoreenak):

- * Publikazioari dagokion zenbakia (zein den jakiteko, zenbakien kodea, hots publikazio guztien zerrenda, Katalogo floristikoaren ostean adierazi dugu).
- * Landare-espeziea topatu deneko lekua (gehenetan toponimoa).
- * Landarearen kokapena, UTM sistemako kuadrikulatan adierazita.
- * Landarea aurkitu deneko altitude-maila (ezagun den kasuetan).

Azkenik, errebisio bibliografikoarekin amaitu ondoren, landare-espezie batzu gelditu dira, gure katalogoan aipatu ez ditugunak, sinonimoak direla eta, zenbait arazo planteiatu bait dituzte. Horregatik, bertan ez inkluditzea erabaki dugu.

ACERACEAE

Acer campestre L.

Eurosiberiarra

- 0 Baztan: Irurita: Artesiaga. 30TXN1974. 260 m. Ibai ertza.
2328.88 Urrizate. 30TXN3090. 320 m. Basoa.
0 Esteribar: Eugiko urtegia. 30TXN2158. 640 m. Baso-orla, sastrakadi/arantzadia
0 Baztan: Urrizate. 30TXN3090. 160 m. Eskistoak.

113. Vera de Bidasa. 30TXN0693. 60 m.

113. Aranaz. 30TXN0282. 300 m.

44. Río Ezcurra. 30TXN0.576.

44. Asquiñ. 30TXN0778.

44. Mte. Mendaur. 30TXN0479.

ACERACEAE

Acer pseudoplatanus L.

Foraneoa

- 2011.88 Baztan: Oronoz-Mugaire. 30TXN1477. 170 m. Haltzadia, erreka bazterreko basoa.
113. Vera de Bidasa. 30TXN0692. 50 m.
113. Lesaka. 30TXN0690. 80 m.
113. Aranaz. 30TXN0484. 160 m.
44. Mugaire-Oronoz. 30TXN1377.

ALISMATACEAE

Alisma lanceolatum With.

Subkosmopolita

2539.88 Baztan: Belate mendt.. 30TXN1167. 840 m. Urmaelaren barnean.

AMARYLLIDACEAE

Narcissus bulbocodium L. subsp. *citrinus* (Baker) Fernández Casas

Eurosiberiarra

- 2128.88 Baztan: Auzatiko jeitsiera. 30TXN2879. 1120 m. Iturburua.
010-89 Baztan: Izpegiko gaina. 30TXN2981. 680 m. Harkaitz-arraildurak. Konglomeratuak.
24.90 Baztan: Artesiaga mdt/Olazar. 30TXN2268. 1180 m. Mendi-hegaleko larreak.
113. Goizueta: Artikutza. 30TXN0084. 710 m.
44. Mte. Mendaur. 30TXN0479.
113. Aranaz: Arangain. 30TXN0080. 970 m.

AMARYLLIDACEAE

Narcissus pseudonarcissus L. subsp. *pallidiflorus* (Pugsley) A. Fernandes
Endemiko penintsularra

26.90 Esteribar: Argintzo. 30TXN2368. 1200 m. Argintzoko hartxingadia.

44. Mte. Mendaur. 30TXN0479.

113. Yanci. 30TXN0585. 240 m.

113. Irún. 30TXN0195. 380 m.

ARANTZA ALDEZABAL

AQUIFOLIACEAE

Ilex aquifolium L.

Atlantikoa

- 0 Baztan: Itxusi mendiak. 30TXN3091. 670 m. Tontorra.
0 Baztan: Itxusi mendiak. 30TXN3191. 300 m. Hariztia.
0 Baztan: Lohiluz (P.Generales). 30TXN2469. 950 m. Urmaela
0 Zugarramurdi: Lecubarria. 36TXN1791. 275 m. Pagadia.
0 Baztan: Leaaterako bidea. 30TXN1681, 640 m. Pagadia.
0 Baztan: Aritzakun errekastoa. 30TXN2688. 400 m. Trokarte-hondoa, hariztia.
0 Baztan: Olazar trokarte. 30TXN2067. 900 m. Basoko soilgunea.
0 Baztan: Bearzun trokarte. 30TXN2677. 800 m. Pagadi barnea.
2529.88 Baztan: Belate mendt.. 30TXN1167. 840 m. Otadia.
0 Baztan: Urrizate. 30TXN3091. 650 m. Harkaitz-arrailduretan.
0 Anue: Zuriaín tontorra. 30TXN1765. 900 m. Pagadia, pista forestala.
0 Esteribar: Okoro. 30TXN2268. 1000 m. Pagadi barneko erreka-tingurua.
0 Baztan: Pto. Artesiaga. 30TXN2268. 1180 m. Pagadian tartekaturik.

44. Mte. Petxokorroerreka, 30TXN0479.

44. Mte. Mendaur, 30TXN0479.

51. Bertiz-Arana: Narvarte. 30TXN17.

ARACEAE

Arum italicum Miller

Mediterraniar/atlantikoa

- 127.9 Baztan: Artesiaga mdt/Olazar. 30TXN2066. 750 m. Pagadi ertza.
113. Lesaka. 30TXN0588. 100 m.
113. Aranaz. 30TXN0382. 210 m.
51. Bertiz-Arana: Bertiz. 30TXN17.
44. Santesteban-Leiza. 30TXN0876.

ARACEAE

Arum maculatum L

Eurosiberiarra

- 0 Baztan: Urrizate. 30TXN3090. 160 m. Eskistoak.
2087.88 Baztan: Androako benta. 30TXN2281. 260 m. Bide bazterra.
51. Bertiz-Arana: Narvarte. 30TXN17.
44. Mte. Mendaur. 30TXN0479.
15. Baztan: Puerto de Belate. 790 m.

ARALIACEAE

Hedera helix L.

Mediterraniar/atlantikoa

- 0 Baztan: Oronoz-Mugaire. 30TXN1477. 170 m. Haltzadia, erreka bazterreko basoa.
0 Baztan: Urrizate-Itxusi m.. 30TXN2991. 700 m. Larrea.
0 Baztan: Aritzakun errekastoa. 30TXN2688. 400 m. Trokarte-hondoa, hariztia
0 Baztan: Urrizate. 30TXN3090. 160 m. Haltzadia, bide bazterra.
0 Baztan: Itxusi mendiak. 30TXN3191. 300 m. Hariztia.
0 Baztan: Aritzakun. 30TXN2990. 330 m. Eskistoak, ur-jauzia.
0 Baztan: Belate mendt.. 30TXN168. 900 m. Karri-horma.
0 Baztan: Belate mendt., 30TXN1267. 820 m. Pagadia.

BAZTAN/KINTOA LURRALDEKO LANDAREDI KORMOFITIKOAREN IKERKETA: KATALOGO FLORISTIKOA

0 Baztan: Bearzun trokarteak. 30TXN2576. 550 m. Ur-jauziaren alboan: eremu hezea
2057.88 Baztan: Aritzakun. 30TXN2990. 320 m. Haritz gainean.

51. Bertiz-Arana: Narvarte. 30TXN17,
113. Vera de Bidasoa. 30TXN1094. 280 m.
113. Lesaka. 30TXN0689. 50 m.

ASCLEPIDACEAE

Vincetoxicum hirundinaria Medicus subsp. intermedium (Loret & Barrandon) Markgraf
Eurosiberiarra

0 Baztan: Itxusi mendia. 30TXN3091. 200 m. Haltzadia
2304.88 Baztan: Urrizate. 30TXN3090. 160 m. Eskistoak.
0 Baztan: Urrizate-Itxusi m.. 30TXN2991. 700 m. Larrea.
196-89 Baztan: Artesiaga/Abartan. 30TXN1873. 700 m. Karriariak: arraildurak.

44. Mte. Mendaaur. 30TXN0479.
51. Bertiz-Arana: Narvarte. 30TXN17.
113. Aranaz. 30TXN0283. 350 m.

ASPIDIACEAE

Dryopteris affinis (Lowe) Fraser-Jenkins subsp. *affinis*

2195.88 Baztan: Maya del Baztan. 30TXN2384. 320 m. Errekasto bazterra.
2093.88 Baztan: Androako benta. 30TXN2281. 260 m. Bide bazterra.
2913.88 Esteribar: Erreguerena-Olazar, 30TXN2066. 780 m. Pista ertza, harearri-horma.
2040.88 Baztan: Aritzakun erreka. 30TXN2688. 400 m. Trokarte-hondoa, haritzia.
2747.88 Baztan: Mardea de Arrayoz. 30TXN1577. 160 m. Galeria-basoa, larrebeldi bazterra
103.90 Esteribar: Okoro, 30TXN2268. 900 m. Pagadian zeharreko erreka.
2897.88 Esteribar: Erregerena-Ezolezaga. 30TXN2064. 720 m. Ur-hauzia.
2842.88 Baztan: Q.rubrazko haritz.. 30TXN2381. 260 m. Haritzia, bide bazterra.
2347.88 Baztan: Urrizate. 30TXN3089. 530 m. Hartxingadi silizeoa.
2379.88 Baztan: Urrizate. 30TXN3090. 260 m. Ibai ertzeko baso mixtoa.
0 Esteribar: Kintoa. 30TXN2268. 1000 m. Otadia.
0 Baztan: Urrizate. 30TXN3090. 160 m. Haltzadia. bide bazterra.
0 Baztan: Itxusi mendia. 30TXN3091. 200 m. Haritzia. Konglomeratu gainean.
0 Baztan: Urrizate. 30TXN2999. 380 m. Haltzadia.

9. Puerto Velate. 30TXN1367. 850 m.
9. Monte Adi-Cdo. Urqiaq. 30TXN2667. 850 m.
9. Roncesvalles. 30TXN3765.900 m.
9. Cinco Villas: Monte Mendaaur, 30TXN0479. 550 m.
9. Quinto Real. 30TXN1367. 1000 m.
9. Lanz. 30TXN1463,
9. Monte Ekaizta. 30TXN0179. 1000 m.
9. Valle de Ulzama: Elzaburu-Velate. 30TXN9564. 750 m

ASPIDIACEAE

Dryopteris dilatata (Hoffm.) A. Gray

Eurosiberiarra

0 Baztan: Olazar trokarteak. 30TXN2066. 800 m. Pagadiko erreka ertza.
2349.88 Baztan: Urrizate. 30TXN3089. 530 m. Hartxingadi silizeoa.
2072.88 Baztan: Androako benta. 30TXN2281. 260 m. Haltzadia, konglomeratu gainean.
100.90 Esteribar: Okoro. 30TXN2268. 950 m. Pagadian zeharreko erreka.
2288.88 Baztan: Legaterako bidea. 30TXN1681. 870 m. Harkaitz-arraildurak.

ARANTZA ALDEZABAL

0 Baztan: Aritzakun. 30TXN2990. 330 m. Galeria-basoa. Eskistoak.
3088.88 Anue: Zuriaintontorra, 30TXN1765. 1410 m. Hartxingadia.

